Eskualdun eta Eskualzale maiteak,

Nahiz zuetarik hainitz Chuberotarrak zireztela, Laphurdiko eskuaran bi hitz erraiteko baimena galdatzen dauzkuet. Hola egitearekin eznaut batere erran nahi Chuberoko eskuara, Bacha-Nabarrekoa eta bertze eskuarak Laphurdikoa bezain eder edo garbi eztirela baina dakitan toki ostan hobekienik Laphurdikoa aditzen dela. Hartako igurikitzen dut etziroztela samurtuko ez eta ilhun eta goibel billakatuko ene entzutean.

Egin dugu (edo izan dugu) gure ~~lehen~~ hedameneko afari lehena. Bizpahirurnetan urtean holako bat egin gogo dugu. Eta nahi ginuke aldi guziez ethor daitezen Eskualdun eta Eskualzale gehiago eta emeki emeki Pariseko bizi diren guziak guregana bil daitezen. Othoitzen zaituztet

beraz egin ahalak iteko bethi gure biltzarrari bizi eta hedamen gehiago emaiteko.

Eta orai gure egungo buruzagi ~~maitearen~~ famatu eta maitearen hitzak aditzeko ditutzu. Orok ezagutzen duzue Manech Ybarnegaray, gure deputatu oner. Jaikitzen haiz ~~zukoi atzegin handiaren atalik hast~~ orai berean minza ahal dezangatik.